

## Euskal Hizkuntza eta Kultura + Hizkuntza Modernoetako gradu bikoitzeko egresatuaren soslaia

Gradu bikoitz hau euskaraz eta ingelesez ahoz zein idatziz bikain moldatzen diren hizkuntza adituak prestatzeko sortu da, bi hizkuntzetan (euskara eta ingelesa) eta horien literaturan eta kulturen trebatuak diren profesionalak. Prestakuntza horri esker gradu bikoitz honetako tituludunari lan aukerak biderkatuko zaizkio eta Euskal Herriko nahiz nazioarteko merkaturako ateak ireki dakizkioke.

Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren irizpideak gogoan izanik, gradu bikoitzaren helburua gradudun eleaniztunak prestatzea da, C1eko gaitasun orokorra eta berariazko eremuetako batzuetan C2ko gaitasuna dutenak: ingelesaren menderakuntzan C1-C2; euskararenean C2; gaztelaniarenean C1.

Laugarren hizkuntza bat erabiltzeko gaitasuna ere izango du egresatuak. Hautazko hizkuntzaren arabera laugarren hizkuntzaren maila honakoa izango da: B1 frantsesa edo alemana aukeratuz gero; A2-B1 txinera edo arabiera ikasiz gero.

Aipaturiko hizkuntza gaitasun horiez gainera, honako gaitasunak ere erakutsiko ditu gradu bikoitz honetatiko egresatuak:

- Euskararen, ingelesaren eta gaztelaniaren mekanismo linguistikoaren ezaguera zehatza erakustea, hizkuntza horiek zuzen erabiltzeko testuen sorkuntzan, proposamen didaktikoetan eta hizkuntza planetan, bai eta hizkuntzen eta bereziki euskararen normalizaziorako prozesuak planifikatzea, inguruneke ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.
- Euskal literaturako eta ingelesezko lanik aipagarrien genero eta estilistika ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea, bai eta europar literaturaren eta kulturen testuinguruan kritikoki kokatzea.
- Heldu eta gazteen hizkuntz irakaskuntzaren oinarriak, ikuspegi teorikoak eta metodori erabilienak identifikatzea eta proposamen didaktiko zehatzen diseinuan aplikatzea.
- Erabilera bereziko testuak itzultzea, hala nola administraziokoak edo komunikabideetakoak, itzulpen gintza profesionalen erabili ohi diren oinarriko kalitate irizpideak aplikatuz.

Gainera, nazioartean buru-belarri murgiltzeko aukera ere izango du nahi duen ikasleak. Erasmus eta antzeko programetan parte hartzea aukeratzen dutenek, sei hileko bat edo ikasturtea osoa atzerriko herrialde batean emana izango dute, bertako bizimodu akademiko eta bestelakoarekiko harreman zuzena lortuz.

Gradu bikoitz honetan landuriko gaitasun horiek guztiak eremu profesionalera hurbiltzeko praktiken bitartez izango ditu landuak egresatuak. Horri esker honako lan eremu hauetarako prestakuntza egokia eskainiko zaio ikasleari:

- Testuen sorkuntza, edizio eta itzulpen gintza
- Kultur bitartekaritza eta sustapena
- Hizkuntzen irakaskuntza bai eta hizkuntza horiekin loturiko kulturarena
- Hizkuntz plangintza eta normalizazioa